

## LARRAMENDIRENGANDIK BATURAINO: *ANTZINA ETA AHOTS*

*Blanca Urgell*

Euskara noranahiko bihurtzeko ahaleginetan burua berotu eta eskuak busti dituztenen artean Txillardegik leku garaia irabazita duenez gero, iruditu zait filologiaren txokotik gehiegi atera gabe, eta bihotzez, lantxo hau eskain diezaiokedala hainbat gaitan irakasle eta gidari dudan hari, gaurko euskara estandarerraino iritsi diren bi formaren etorkia argituaz. Edo hartan saiatuaz, behinik behin.

Mitxelena (1984: 16) *eskutitza, garrantzia eta berezitu* bakarrik zenbatu ahal izan zituen Larramendiren *Hiztegi Hirukoitz*-etik (hemendik aurrera *HH*), Arana-Goiriren eta Azkueren garai txarrak (Larramendirentzat txarrak, bederen) nola edo hala igarorik, guganaino iritsi eta sasoiari dabilzan hitzetan.

Baliteke zerrenda zertxobait handitu ahal izatea, baina bidea orotara antzua da, Larramendik bitxikeriak bakarrik eskain zitzakeelako ustean oinarritzen baita. Aitzitik, badagoke auziari bestela begiratzeko modurik: XX. mendearen hasieran hitz berri nabarmen ia guztiak bertan behera utzi baziren ere, *HH*-az geroko literaturan eratorrietan igartzen den gorakada kontuan harturik, badirateke, Sarasolak (1986) argudiatu duenez, hainbat eta hainbat hitz Larramendik sortuak eta geroko idazleek erabiliaren erabiliaz euskara idatzian zeharo arrunt bilakatuak. Ez da nolana hiko aldea, isilean igarotzeko moduko hitzak ere eskain zitzakeela onartzen ari baikara.

Eta hala eta guztiz ere, uste dut Sarasola llabur geratu zela. Alde batetik, nago Larramendik gaur arte gorde duen eragina anitzez handiagoa dela, baita sotilagoa ere, noski. Zehazkiago, literatur aldaeren hautapenari nagokio: *HH*-an erabaki zen, erabaki ere, hainbat hitzen forma "kanonikoa" (literatur for-

ma), aldaera zenbaiten zein anitzen artean. Hau erakusteko, bereziki adierazgarri deritzodan hitz bat hautatu dut: *antzina*.

Halaber, nago Azkuek-eta nahita egin zuten garbiketa larretsi dela. Ez dut uste *HH*-ari bere hiztegian utzi zizkion zirrituak (Mitxelena 1961: 365) denak ustekabekoak direnik eta, hau frogatzeko, XVIII-XIX. mendeetan erabili ez arren, Azkuek berak boladan ipini zuen hitz bat hautatu dut: *abots*.

### *Antzina* ala *antxina*?

*OEH*-ak (geroxeago *Hiztegi batua*-k ere bai) *antzina* forma hautatu du aldaera nagusitzat, hanbatik hanbatean erdialdeko tradizio indartsua hobetsiaz, jakina. Zirt edo zart egin behar denean sarritan egin beharra bera baino zuribide sendoagorik ez badago ere, esan daiteke honetan hautaketa lehena-gotik eginga zetorrela: bizkaierazko tradizioan *antxina* erabat nagusi izan arren, XX. mendeko idazle bizkaitar zenbaitek (Kirikiño, Enbeita, Lauaxeta) *antzina* ere, noizbait bederen, erabili izan dute. Oso adierazgarria da alde honetatik Enbeitaren "*Euzko-Deya*-ri agur"-eko hurrengo adibidea:

*Euzko-Deya*, gaur legez,  
Gaste ta gordiña,  
orain berrogei urte  
Agertu baziña,  
Lotsaturik antziña  
Ebrotik atxiña  
Juango zan betiko  
Erdera zikiña (Enb 127).

*OEH*-ak (s.v. *aitzin*) honela iruzkintzen du: "Contrapone *antziña*, central-occ. 'antes, anteriormente', común en la lengua escrita, a *V atxiña* 'aitzina' de valor local [hots, leku-kasua]". Itxura guztien arabera, beraz, literatur hizkuntzako hitzat (ez euskalki bateko edo bestekotzat) ezagutzen zuten.

Dena dela, literatur tradizioaren berpasatik berez bezala dator euskalki banaketa ere gutxi gorabehera bizk. *antxina* vs gip. *antzina* dela egitea. Halabeharrez edo bestela, ostera, bietatik *antxina* formak bakarrik erdietsi ditu ahozko bermeak XX. mendean, *OEH*-aren datuen arabera: Etxba *Eib* (*antxiña*, *antxiñan*), Iz *Ulz* (*antxine*), *ArOñ* (*antxina*) eta A *EY* III, 245 (*antxiña zan berandu* G-to, baita G-azp ere bederen, *OEH*-koen eransketa bati esker dakigunez). Beraz, gipuzkeraz eta are nafarreraz ere, hizkera batzuetan

behinik behin, *antxina* erabiltzen da. Honainokoa, Lakarrak (1986: 670-673) "erdigipuzkera" deitu duen horren beste adibide bat baino ez dugula dirudi: alegia, gipuzkeraz orokorra ez izan arren, literatur tradizioa gipuzkeraz forma bakarra bailegoan aritu deneko bat, ahozko gertakariak estaliaz.

Baina, zein dira ahozko gertakariak *antzina*-ri dagokionez? Istorio hone-tan harrigarriena Azkuek berak *antzina* ez jasoa da. Honen ordez, *antsina* (B, G), *antxina* (B, S) formak jasotzen dituen sarrera bat eratu zuen, <ts>ri dago-kion lekuan. *Morfología vasca*-n ere, atzeko zerrendaren arabera, *antxinate* bakarrik aipatzen du (§ 165), zein eta Aizkibel lekukotzat emanez. Esan gabe doa buruko forma (*antsina*) bere "berreraiketa" baino ez dela: *antzina*-ko txistukaria okertzat jo zuen, nonbait. Ez dago batere argi, ordea, zergatik egin zuen. Azkueren gogoia nondik nora ibili zen asmatzea batzuetan zaila izan arren, nekez sinets daiteke, nik uste, Gipuzkoako hainbat herritan entzutera, oker zein zuzentzat jo, *antzina* ez jasotzea. Ulegarrixeago izan liteke, berriz, entzuterik izan ez balu, zeren eta orduan literaturako forma beste zerbaiten ordez, beste zerbait gaizki ulertzetik sortutakoa delako susmoa etor baitze-kioken. Dena dela, nola liteke? erabiliena, gipuzkera osoturako aukeratua (cf. A *Ardi* 73, ap. *OEH*) entzun ez?

Egin dezagun sartu-irten bat historiaurrean: itxura guztien arabera, *antzina* / *antxina* bikoteak eta *aitzin* eta aldaerek jatorri berbera dute. Adieraren aldetik ez dago zailtasunik: aurrea eta atzea denboraren marran non dugun ebaztean datza: *antzina* / *antxina* bizirik dirauen *aitzina* 'aurrera'-ren baliokidea da, *hona*, *horra*, *aurra*... bezala, hots, tartekatzen ohi zen -r-a atzizkiaren zati ezi-nutzizko bihurtu aurreko formetatik iharturik iraundako bakanetakoa. Bestalde, *aitzina* > *atxina* aldaketa erregularra da, eta Enbeitarengan ikusi dugun bezala, Bizkaiko leku batzuetan forma honek gorde du 'aurrera' adierazteko gaitasuna (cf. *kaleti atxina bazoaz*, Añ *EL*<sup>2</sup> 68, ap. *OEH*, s.v. *aitzin*), bestetan (Mundakan (B-mu) Azkueren arabera) 'antzina' esanahia duen bitartean. Egiantzekoena *aitzin* zaharrena izatea denez gero, literaturan nagusitu den *antxina* formako aurreko *n*, azkenik, bigarrenaren oihartzunaz azaldu beharko genuke, hainbat hitzetan gertatu den moduan (Mitxelena 1977: § 17.9).

*Antzina* azaltzeko, *aintzina* tarteko urratsa eman behar dugu era berean (cf. *ainziña*, jadanik *GavS* 25, ap. *OEH*); ondoko silabako bokalarekiko disimilazioaz diptongoaren bigarren osagaiaren galera ere ez da ezezaguna (Mitxelena 1977: § 4.3). Alabaina, zerbait ezinezkoa ez izateak ez du esan nahi nahitaezkoa denik. Ez dut esango begiratuez gero bazterren batean *antzina* aurkituko ez denik: ez da hau kontua. Dakigunaren arabera, ahozko euskaran *antxina* da nagusi, eta *antzina*-k hartu duen garrantzia literaturari eta hari bakarrik zor zaio.

Literatur erabileraren azpian, berriz, Larramendiren hiztegia dago. Une batetik aurrera hitz honen historia aberatsa bada ere (*OEH*-ak hamar zutabe bete ditu haren eta eratorrien adibideez), orotara oso laburra da: ez dago *Hiztegi Hirukoitza* baino lehenagoko lekukotasunik, Hegoaldean bakarrik erabiltzen diren hainbat hitzekin gertatzen zaigun bezalaxe. Larramendik hiru aldaera jaso zituen, *anciña*, *anchina* eta *aunciña* (s.v. *antiguamente*), eta lehenengo biei eman zien hirugarrenaren gaineko erabateko lehentasuna, elkarrekin sarri aipatuaz: *anciñacoa*, *anchinacoa* "antiguo", *anciñacoac*, *anchinacoac* "antepassados", *anciñatua*, *anchinatua* "antiquado". Oro har, *aunciña* aldaerari buruz dakiguna (Azkuek *auntzina* Bidanian (G-bid) bakarrik lekukotu ahal izan zuen) ondo dator Larramendiren erabakiarekin.

Halaz ere, nabarmenki *HH*-an nagusi den forma *anciña* da, bai elkartu-eratorriak egiteko (1), bai bestelako sarreretan hitza erabili behar dueneko (2):

- (1) *anciñaera*, *anciñadina*, *anciñatasuna* "ancianidad", *anciñaqueta* "anti-gualla", *anciñaera*, *anciñatea* "antiguedad", *anciñaria*, *anciñazalea* "antiquario", *anciñandea* "decanato", *anciñaro* "inveteradamente".
- (2) *anciña oi zan jostategui*, *jostalecu biribillá* "amphiteatro", *ezpatiyac elcarri tiratzea*, *anciña eguin obi zan bezala* "bohordar".

Inolako zalantzarik gabe Larramendiren hautapen honek baldintzatu zuen, ondoko idazlez idazleko transmisioarekin batera, liburuetan Kardaberatzengandik aurrera *antzina* (zehazkiago, *anciña* ia beti oso berandu arte) izatea gipuzkerazko liburuetan aurkitzen den forma, gipuzkeraz idazterakoan Mogelek, Arrese Beitiak eta Txomin Agirrek ere aukeratua. Alde honetatik, badirudi literatur bizkaiera eraikitzen denean (Mogel, Añibarro) bizkaitarrak (ziurrenik hainbat hitz gehiagotan bezala) askeago sentitu zirela, berezko tradizioarik ezean edo beste tradizioari aitz, eurentzat arrunta zen forma hautatzeko.

Larramendiren hiztegiraino daraman testu kate bat dugu, beraz, eta azken finean *HH*-an *anzina*-ri eman zitzaion lehentasunak azalduko luke gerokoen erabilera. Baina, zerk azaltzen du Larramendirena? Akaso Larramendik guk baino hobeto lekukotu ahal izan zuen ahozko euskaran? Nire ustetan ez dago halakorik uste izateko arrazoirik. Ez dakit entzun ala berreraiki egin zuen, gazt. *cacho* euskararen bitartez azaltzeko *acach* forma *akats*-etik "berreraiki" zuen bezala, baina, dena dela, ez du garrantzi handirik: *HH*-an, argi eta garbi, *anzina*-ren hobespena gazt. *anciano*-ren familiaren etimoa izatean datza: "Ancianidad, antes ancianía, viene de el Bascuence *anciña*, *anciná*, *anchina*, que significa en tiempos antiguos, en tiempos passados".

**Abots herrikoi?**

Irakurlea beti liburu artean edota jakintsu artean badabil, jakingo du zertaz ari naizen: nik *abots* ikasi nuen bestela *voz* esaten nuen haren ordeztan, eta niretzat *hau mahaia da* bezain euskara arrunta da; *abots* aldaera izan dezakeela ere badakit. Ez zait behin ere burutik pasatu bestek bestela esan zezaketetik, inoiz edo behin *boza* entzun edo irakurri izan badut ere. Dena dela, *OEH*-koak ere bederen uste berean dabiltzala egiaztatu dut, zeren eta *boz* dela eta, Mendebaldean “a partir de mediados del s. XVIII en autores de léxico poco cuidado” erabili zela baitioskute; deiak *abots*-era bidaltzen duenez gero, jakintzat eman beharko dugu eurek ere zeritzela hiztegia zaintzen zuten idazleek *abots* / *abots* erabili behar zutela.

Hara nire harridura Larramendiren hiztegiko honako sarrera hauekin topoz topo egin nuenean:

Término, voz, palabra, hitza, hitzera, abotsa.

Voz (...). El Latín y Romance vienen de el Bascuence *boza*, cuya raiz ez *aboaz*, que significa con la boca, y es la que forma la voz propriamente, a diferencia de los demás sonidos; y también pudo decirse de *abots*, sonido de la boca.

Agerian dago *abots* “sonido de la boca” baldin bazen, Larramendik egokitu zuela “término, voz” esateko; ageriago oraindik, hiztegitik honen euskararantz *abots* ez zela *boz*-en esanahikide, haren etimologian erabiltzeko egokia izan arren. Alabaina, gauza batek batez ere harri gaitzake: gazt. *voz*-en etimologian, hain zuzen, erabili izanak.

Artean jakintsurik eskura ez nuenez, liburuetara jo nuen, eta *OEH*-an (s.v. *abots*) hiztegitan Larramendigandik Azkueganaino zuzenean igarotzen zela ikusi nuen, tarteko testu-agerraldirik gabe. Zilegi bekit bertako azalpena euskaratzea: “XIX. mendearen bukaeratik aurrera lekukotua. Formarik erabiliena *abots* da. Azkuek, Txomin Agirrek, Lizardik, Zaitegik... *aots* erabiltzen dute, baina ez bakarrik. (...) Iparraldean Xalbadorrengan bakarrik aurkitu dugu”. Beraz, lehenik eta behin hitza Iparraldean ezezaguna dela ikasi nuen, denok ezagutzen baitugu Xalbadorren euskararen zabala. Baina, eta Hegoaldean? Lehenengo testu-agerraldia Azkueren *Izkinde*-koa (1891) da: *Itzak izkaiakaz eta aotsakaz eratuten daiz; augaitik Aoskindea ondo ikasteko lenengo aotsak gero izkaiak eta atzenetz itzak astertu doaz*, edo gaurko euskararantz ipinita “Hitzak letrez eta hotsez eratzen dira; honegatik ahoskera ondo ikasteko lehenengo hotsak, gero letrak eta azkenik hitzak aztertzen dira”. Azkuek, beraz, hiztegia egin baino lehen *hots* mugagabea zertxobait mugatze-

ko erabili zuen. Baina ez du Azkueren *aots* honek Larramendiren *abots*-ak baino itxura hoberik.

Azkue “errudunaren” hiztegiara jo beharra zetorren hurren:

**Abots** (B, G), el ruido de los labios en la masticación. = Los modernos lo usan en la nueva acepción de “sonido oral” más bien que de “ruido inarticulado de la boca”, que es su genuina significación.

**Aots:** 1° (B-m), sonido, voz. = Se usa comúnmente para denotar un ruido inarticulado de la boca.

Azkueren gauzak dira, “los modernos” esatea, ikusi dugun bezala bera izan baitzen adiera hori idatziz jarri zuen lehena, baita asmatzailea ere, apika. Baina historia honela idazten da... Alabaina, geroko idazlerik onenek Azkueri entzungor egin ziotela badakigu *OEH*-ari esker, eta hitzaren bizitzak aurrera jarraitu zuela, nik *ahotsa* ikasi arte, eta geroago ere. *OEH*-ak ‘hotsa’ adieratik ‘boza’ adierarako aldaketa edo bilakabidea ezagutzea irakurlearen esku uzten duen arren, adibideak irakurtzen hastea aski da berehala (*Euskalzale* aldizkarian oraingoan, 1897an) *auots* edo *boz* aurkitzeko; izenpetzen duena *Euskalzale* da, hots, Azkue bera berriz ere.

Atzeranzko bidaia honetan laguntzeko moduan, irakurleak onartu behar dit Azkueren hiztegiak, ahozko euskara bakarrik jasotzen duelako itxuraren azpian “ahozko” ez den gauza asko jasotzen dituela, gogoko zituen idazle zein hiztegi gileengandik hartuak. Ez dut nik esango hau akatsa denik, baina ez aitortzeaz sekulako buruhaustea sortu dizkigula bai, bederen. Dena den, *abots* / *aots* sartu egin zuen, baita *aots* B-m [= Markinako bizkaiera] laburdurarekin markatu ere. Demagun Markinalde zabal aberatsean “ez eizu aotsik egin” esaten zaiola / zitzaiola ahozabalik jatekoa txikitzen ari den umeari. Demagun. Baina ez halakorik B, G laburdura zabal bezain esanguragabekoaren azpian: bizkaiera arrunta? gipuzkera arrunta? ez nik uste, behintzat. Honezkero jakintsuren bati ere galdetuta nago, eta ezetza eman didate.

Hala eta guztiz ere, ez Markinan ez inon erabiltzen da, Azkueren beraren arabera, “sonido oral” adiera teknikoan, ez eta *boz*-en ordeztu ere, antza denez. Azkue damutu eta azkenik “herriari” entzun ahal izan zion adieran bakarrik jasotzen ahalegin du balitz ere, 1891n lehenengoz erabili zuenean, eta are argiago 1897an, aitzindari argi bat izan zuen, dela *HH* bera, edo dela honen ondorengoetatik bat (Astarloa? Aizkibel?).

Dagoeneko *OEH*-ko *boz* sarrerara berriz hurbiltzeko paradan gaude. Iparraldeko tradizioak aho batez berresten du eta, gainera, Hegoaldeari dago-kionez ahozko lekukotasunak ia erabatekoak dira, V-gip, G-goi, AN-egües-

ilzarb-olza, Ae, Sal, R bederik baita, halako hitzak jasotzeko atzeratasuna kontuan harturik ere. Areago, jadanik badakigu XVIII-XIX. mendeetako idazleek nekez erabil zezaketela *a(b)ots boz*-en ordeztu, 1897 arte ez baitago horren alerik inon; aitzitik, *abots* erabiltzekotan, *HH*-aren arabera, *hitza*-ren ordeztu (beharbada zehazkiago gaur batzuetan *berba* erabiltzen den adiera berezitan) erabili behar zuketenez gero, ez erabiliak ez gintuzke harritu behar.

Azkenik, ohar gaitezen 'boz' adieran *HH*-ari jarraitzekotan *boza* erabili behar zutela, hain zuzen, edo aukeran *aozki*. Bigarrena *OEH*-ak bederen jaso ere jasotzen ez duenez, egin behar dugu lehenaren alde makurtu zirela, ez hiztegia gutxi zaintzen zuten idazleek, baizik eta adiera oro har erabili behar izan zuten idazle guztiek, direnak direla; eta ez dira denak hain "txarrak" (Kardaberatz, Lizarraga Elkanokoa, Gerriko, Iturriaga, Bilintx, Arrue, J.I. Arana...). Honetarako hiruzpalau zio izan bide zituzten, euren jakinduria edo sentiberatasunaren arabera: *HH*-an *voz*-ek euskal etimologia izatea, irakurleek erraz ulertzeko moduko (egunero erabilitako?) hitza izatea eta, irakurzaleenentzat, Iparraldeko tradizio indartsuan hitz arrunta izatea.

Derradan, bidenabar, Larramendik *voz*-i euskal etimologia ematea, "zorrak hartzeko bihurtzea" (Mitxelena 1983: 914-915) ez eze, Iparraldeko tradizioaren usadioa berrestea izan zela, azken urteotan Hegoaldeko literatur hizkuntzaren jaiotzan Iparraldeko tradizioak izan zuen garrantziaz biltzen ari diren xehetasunak (ik., esate baterako, Urgell 1992) alde jakingarri batetik indartzeko moduan.

## Azkena

Larramendik egiantan lortu zuena gutxiestetik bide dator haren eraginaz orain artean izan den irudia den bezain laburra izatea. Hitzen eta hitzen aldaeren literatur bilakabidea aztertzen hasi orduko, badirudi haien zabalkundean zerikusituz zuzena izan zuela. *Hiztegi Hirukoitza* XVIII-XIX. mendeetako idazleen erreferentzia izan zen heinean, eta Azkuek (berak batez ere) tradizio horrekin hautsi ez zuen heinean, guganaino goxo-goxo iritsi dira Larramendik egindako hainbat hautapen, baita itxura oneko asmakuntzaren bat ere, ausaz.

Inoiz zuzenean Azkue izan da *HH* eta gure arteko bitartekaria, arrazoi ezberdinengatik alde batera utzitako hitz berriak (edo, nahiago bada, adiera berriak) boladan ipini baitzituen, baita ziurrenik *HH*-ko etimologia batek iradoki bakarrik egiten zuen lotura bat (*abotsa* = *boza*) gauzatu ere. Aztertzekeo dugu, beraz, Azkue gaztearen lexikoan zerk eragin zuen, zerk lotzen duen

*HH*-arekin, eta hartatik zerk iraun zuen geroko euskaran, bere hiztegiaren irakatsiak edo hutsuneak gorabehera.

Honekin guztiarekin ez dut inondik inora ere aditzera eman nahi *antzi-na* eta *abots* bezalako hitzak zokoratu beharko genituzkeenik. Ez eta hurrik eman ere. Bide traketsagoetatik iritsi ditugunak ere baditugu, hizkuntza guztiek dituzten bezalaxe, eta ez dira honegatik arbuiatzekoagoak, tradizio sendoa eta batez ere denon adostasuna erdietsi duten neurrian. Aitzitik, zerekin jokutzen ari garen jakitea komeni zaigula deritzat, ez bakarrik hiztun modura geure hizkuntzaz eta hizkuntzaren historiaz gehixeago jakiteagatik, baizik eta ikertzaile modura bi hitz hauekin ordezkatu nahi izan ditudan aurreiritziak, eta aurreiritziok berekin dakartzaten epai okerrak uxatzen ahalegin gaitzen.

### Bibliografia

LAKARRA, Joseba Andoni (1986), "Bizkaiera zaharra euskalkien artean", *ASJU* XX-3, 639-682.

MITXELENA, Koldo (1961), "Euskal iztegitilleak XVII-XVIIIgarren mendeetan". Orain *SHLV* I, 361-372.

— (1977), *Fonética histórica vasca*, 2. arg. osatua, *ASJU*-ren gehigarriak 4, Gipuzkoako Foru Aldundia.

— (1983), "Mendiburu eta Larramendi", *Euskera* XXVIII-1. Orain *SHLV* II, 912-915.

— (1984), "Aurkezpena", in I. Sarasola, *Hauta-lanerako euskal hiztegia*, GAK, Donostia.

SARASOLA, Ibon (1986), "Larramendiren eraginaz eta", *ASJU* XX-1, 203-215.

URGELL, Blanca (1992), "Axular eta Larramendi", in Lakarra (arg.), *Manuel de Larramendi. Hirugarren mendeurrena (1690-1990)*, Andoaingo Udala - Euskaltzaindia - Gipuzkoako Foru Aldundia - Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila, Andoain, 221-246.